



3378 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko abenduaren hogeita zortzian

Arkitekto Aholkularitza kontratatzeko erabaki proposamena ikusirik

Administrazio Orokorreko Teknikariak –gaiaren inguruan- luzaturiko txostena kontuan hartuaz: "Oiartzungo udalak behin behineko beharra du Arkitekto Aholkulari bat kontratatzeko, astero egun bat lan egiteko, lan pilaketa dela eta.

30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 122.3. artikulurekin adostasunean, kontratu txikiak zuzenean kontratatu ahal izango dira gaitasuna eta prestakuntza profesionala duen edozein enpresariarekin eta obra-kontratuak ez diren kasuan, eta kontratu bat txikitzat har daiteke bere prezioa 18.000 € baino gutxiagokoa bada.

Aipatutako Legearen 95. artikulua dionaren arabera, kontratu txikien espedientearen izapiderako gastuaren baimena eta dagokion faktura baino ez da behar.

Beraz, Arkitekto Aholkulariaren kontratuaren prezioa 18.000 € baino gutxiago denez, ez dago eragozpenik espediente honetan kontratu txikien izapidea erabiltzeko.

Alabaina, kontratu txikiek ezingo dute urte bat baino gehiagoko egikaritze-epea izan eta ezin izango dira luzatu. Era berean, ezin dira kontratuak zatitu Legeak ezarritako prozedurak erabiltzea saihesteko. Bestela, akordiozko prozedura jarraitu beharko litzateke".

Ogasun, Kontu Berezien eta Beste Gaien Batzordeak 2010ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, gai honi buruz luzatutako diktamena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki-Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, goian aipatutako aurrekinak kontutan hartuta ondorengoa ERABAKI DUT:

Arkitekto aholkularitza zerbitzu kontratua sinatzea Idoia Letamendia Sorozailekin honako baldintzetan:

Kontratuak sei hilabeteko iraupena izango du 2011ko urtarrilaren 1etik 2011ko ekainaren 30ra arte, eta gehienez 30 ordu hilabetetero.

Alde biak adostu eta sinatutako kontratu berriaren arabera, prezioa 38,75 €/ orduko (BEZ barne) izango da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

